

Aukera berrien bila

Baso jabeok alternatibak behar ditugu: iraganean eta gaur egun ere natur ingurunearen alde asko egin dugu eta etorkizunean ere egingo badugu, gutxieneko errendagarritasun bat beharrezkoa dugu. Konplexurik gabe defendatu behar dugu hori. Baso eta mendien kudeaketak gizarte eta naturarentzat onura izugarriak ekartzen ditu, baina karga guztiak ezin du gure gain geratu. Eskua jasotzeko garaia iritsi da.

Baina aldaketa beharrezkoa dugu. Guztiek eskatzen digute: merkatuak, gizarteak, erakundeek eta errealitateak berak. Birmoldatu beharrean gaude. Ez da lan samurra, are gutxiago ekaitzaren erdian, baina hil ala bizikoa dugu.

Etsaia abandonua dugu. Horixe da guztietan aukerarik okerrera, denei kalte handien eragiten diguna; gizarteari ere bai. Ulertzekoa da, aldiz, baso jabe askoren etsipena eta nekea. Beren lanak eta lursailak bertan behera uztea errazena izan daiteke une zail hauetan. Aipatu dugu errentagarritasun falta, baina hor daude ere Administrazioek ezarritako baldintza geroz eta gogorragoak eta baita zenbait kolektiboek egiten dizkiguten eraso zuzenak. Haiengandik defendatzea ere hil ala bizikoa da. Hainbat eta hainbat gezurrei aurre egitea.

Ezin liteke ulertu ere aldaketa klimatikoari aurre egiteko estrategietan, gure sektorea alde batera uztea. Geu gara lurraldeko arnastokietako jabe eta kudeatzaile. Gure basoek sarbide modua egiten dute, CO2a irentsi eta oxigenoa itzuli. Ezin dugu hori ahaztu.

Buletin honek zuen behar eta kezkei erantzun nahi die. Eta zuek izango zarete, beraz, noiz eta nola nahi duzuen erabakiko duzuenak. Hasieran, hilerok bidaliko dizuegu, euskaraz eta gaztelaniaz. Zuen iradokizunak jasotzeko txokotxo bat jarri dugu. Bertara bidal ditzakezue zuen aportazioak, zalantzak eta proposamenak. Denak aztertuko ditugu. Animo!

BASO ELKARTEA

ASOCIACIÓN DE PROPIETARIOS
FORESTALES DE GIPUZKOA